

KANALAK

Bezeroengan lehen inpresio ona sortzeak funtsezko garrantzia du edozein enpresarentzat. Gaur egun eskuragarri ditugun baliabide digital ugariak erabiliz, hala nola sare sozialak, gure enpresa mundu mailan ezagutzera emateko aukera dugu. Sare sozialen bidez, Mind up aplikazioa erabiltzaile potentzialengana iritsiko da.

Mind Up-en iragarkiak sare sozial desberdinetan jarriko dira, hala nola **Instagram, TikTok edo X** (lehen *Twitter*). Plataforma hauetan kontu ofizialak sortuko ditugu, eta bertan, gure arikazioarekin lotutako berriak, eskaintza bereziak eta deskontuak iragarriko ditugu. Era berean, publizitate zuzen eta erakargarria egingo dugu, gure produktua ikusgarriagoa izateko eta erabiltzaile kopurua handitzeko.



Propagandari esker, gure aplikazioa gero eta jende gehiagok ezagutu eta erabiliko du, gure helburu nagusia hori baita: komunitatea haztea eta bezero didelen sarea sortzea. Gainera, Mind Up aplikazioa erabiltzaileei eskuragarri egongo da hainbat plataformatan: **Play store, App Store, Steam eta gure webgune ofizialan**. Aplikazioa doakoa izango da deskargatzeko, eta erabiltzeko, ordenagailu edo mugikor bat besterik ez da behar. Bi gailu elektroniko horiek izango dira Mind Up instalatzeko gai direnak.

Horrez gain, bezeroei arreta hobea emateko, hainbat komunikazio kanal martxan jarriko ditugu. Bezeroen emailetara mezuak bidaliko ditugu, hala nola iragarpenak, aplikazioaren eguneraketan berri eta harpidetzetako deskontuak. Horrez gain, gure erabiltzaileei eskerrak emango dizkiegu gure plataforman erregistratzeagatik, gurekin harreman estuagoa sortzeko.

Bezeroekiko harremana zuzena izan ez arren, gure bezeroak entzunak sentitzeko baliabideak ezarriko ditugu. Adibidez, gure webgunean “Laguntza” deituriko atal bat egongo da, non erabiltzaileek aplikazioari buruzko zalantzak eta galderak egin ahal izango dituzten. Gainera, bezeroei erantzun egokiak eta azkarrak emateko, hileroko bideo bat igoko dugu gure **Youtubeko kanalean**, gehien errepikatzen diren galderak era zalantzak argitzeko.

Bezeroekiko komunikazio estrategia honen bidez, Mind Up-ek erabiltzaileengan konfiantza eta atsegina sortzea bilatzen du. Gure helburua ez da soilik bezero berriak erakartzea, baizik eta dagoeneko erabiltzaileak direnak gure komunitatearen parte sentiaraztea. Eta horretan, bezeroen esperientzia hobetzen jarraituko dugu, gure enpresaren eta erabiltzaileen arteko harremana sendotuz. da gure webgunean, “laguntza” deituriko atalean. Egiten diren galderen arabera eta dudak argitu ahal izateko, hilean behin gure Youtubeko kanalean bideo bat igoko dugu gehien

errepikatzen diren galderak eta dudak erantzuten, bezeroek erantzun bat eduki dezaten. Honen bidez, gure bezeroekiko harremana estutzen joango ginateke.

